

Hitzaurrea

Uztarok bere ehungarren zenbakia argitaratu du, gertakari handia da hori Euskal Komunitate Zientifikoarentzat. Egia da ez dela bere garrantzia esajeratu behar, *Uztaro* ez baita euskal aldizkari zientifiko-unibertsitario bakarra, ezta zaharrena ere; egia da, halaber, Euskal Komunitate Zientifikoak gero eta oinarri zabalagoak dituela eta, une honetan, hogeitabat aldizkari ditugula euskara hutsean, eta hirurogei bat baita ere inoiz edo beste, gehiago edo gutxiago, euskarazko artikulua argitaratzen dituztenak; eta egia da, halaber, *Uztaro*, zorionez, bat gehiago besterik ez dela konpainia noblean, poetak esango zukeen bezala, baina guretzat, Erredakzio Kontseiluarentzat, *Uztaro* perla bitxi eta balios bat da, urre eta bolizko kuttun berezi bat, diamantezko ezkutu bat, gure bihotzaren parte bat, funtsean. Zeren *Uztaro* proiektu kolektibo bat da, Udako Euskal Unibertsitatearen egitasmoetako bat, eta berari esker gure herriaren taupada oso gertu sentitzen dugu, eta etorkizunean sortuko den euskal unibertsitatea bidean dela iruditzen zaigu, eta gauzagarria dela, eta egunen batean gauzatuko dela. Eta, hartara, zenbaki bakoitzarekin amesten dugu euskararen salbamendua, gure aurretik izan ziren euskaltzale guztien amets zahar hura, egunero berritzen dela, eta egunen batean euskararen iraupena ez dela arriskupean egongo, eta euskaldunok arnasa hartu ahal izango dugula lasai, gure hizkuntzaren etorkizunaren jabe. Horregatik, *Uztarok* bere ehungarren zenbakia argitaratzea gertakari bat gehiago besterik ez da euskalgintzaren egunerokotasunaren barruan, jakina, baina guretzat, Erredakzio Kontseiluko kideentzat, esanahi berezi bat du, eta espero dugu zuretzat ere, irakurle, nola edo hala esanahi berezia izatea egunerokotasunaren errekan.

Uztarok bere ehungarren zenbakia argitaratu du, esaten genuen, eta sentimenduari zor zaion lekua eman ondoren, utzi diezaiogun mintzatzen buruari. Hogeita sei urte pasatu dira zero zenbakia agertu zenetik eta 552 egile eta 601 artikulua bildu dira ordutik; kopuru handiak dira, Euskal Komunitate Zientifikoaren zabaltasunaz eta sendotasunaz goraki mintzo direnak, baina baita haren oinarrizko ahuldadeaz ere. Ala benetan uste dugu azken hogeita sei urtean gauzak errotik aldatu direla eta Euskal Komunitate Zientifikoa nahiko sendo finkatu dela etorkizunari beldurrik gabe begiratzeko moduan? Garbi dago ezetz. Oraindik ere prekariotasuna da gure ezaugarri nagusia, behin-behinekotasuna, sakabanaketa. Horregatik, berriz ere hausnarketa baterako deia egin diegu *Uztaron* kolaboratu izan duten hainbat laguni eta, horietatik, hamalau izan dira testuak igorri dizkigutenak. Lagin esanguratsua delakoan gaude. Esanguratsua, batetik egile bakoitzak bere hausnarketa propioari ekin diolako, eta bestetik tratatzen dituzten gai zehatzak, testuei ematen dieten jitea eta egiten dituzten azterketa eta proposamenak askotarikoak direlako. Eta hori da, hain zuzen ere, Euskal Komunitate Zientifikoaren bigarren ezaugarri nagusia: askotarikotasuna.

Beraz, sakabanaketa eta askotarikotasuna, baina guztion oinarrian euskara normalizazio osora eramateko delibero argia. Euskara hizkuntza zientifikoaren mailara igotzeko eta testuinguru horretan erosotasunez erabilia izateko asmo nabaria. Eta bide horretan aurkitzen ditugun ahaleginen eta oztopoen gaineko azterketa, hausnarketa. Ez gara asko, baina batzuek uste dutena baino gehiago; gure egoera ez da oso ona, baina askok uste dutena baino hobea; eta ez gaude berehalako arriskupean, baina askok ikusten ez dituzten eragozpen eta gabeziak ditugu. Horra egoeraren argazkia. Ados ote zaude, irakurle?

Jarraian, bildutako hamalau testuen berri laburra emango dizugu eta gonbidatuko zaitugu irakurketa zuzenean murgiltzera. Hamalau txinparta labor dira, denak desberdinak eta, aldi berean, denak asmo berberak sortuak. On dagizula.

Joseba Agirreazkuenagaren testuaren izenburua da «*Uztaro*: ingelesez ere bai. Ehun zenbaki eta gero, eztabaidarako proposamena». Hausnarketa orokor bat da *Uztaroz* eta Euskal Komunitate Zientifikoaz, proposamen zehatz batekin, nazioartekotzeari begira. Gure artean gutxitan aipatzen den gaia.

Mikel Aizpuruk bere testuan («Zenbakiak eta letrak. Historia arloko lanak *Uztaro* aldizkarian») gaia diziplina akademiko zehatz batean zentratzen du, Historia, eta ingurune konkretu batean, *Uztaro* aldizkaria. Datuekin batera hausnarketarako tarte ere hartzen du.

Jaione Apalategik antzeko gaiak tratatzen ditu «Giza eta Gizarte Zientziak eta Pedagogia euskaraz» izeneko artikuluan, hots, aldizkari zientifikoaren eginkizuna eta euskarazko ekoizpena nazioartekotzeko eragozpenak, baina beste jite bat emanik: Pedagogian zentratzen da eta, bereziki, honezkero ikertzaile guztien artean hain ospetsu bihurtu den *inpaktu* (eragite) kontzeptuaz dihardu.

Jokin Apalategik, ordea, hausnarketa orokor bat egiten du Giza eta Gizarte Zientziei buruz, Soziologiatik abitatuta, «Giza eta Gizarte Zientziak eta pentsamendu globala» izeneko artikuluan. Bukaeran, Edgar Morin eta Ivan Jablonka-ren planteamenduak erreibindikatzen ditu pentsamendu globala berriz ere bideragarria izan dadin azken urteotako sakabanaketa gaindituz. Akademiko euskaldunok ere ez ote dugu horrelako arazorik?

Karmele Artetxeren «*Uztaro* aldizkariaren ehungarren zenbakiaren testuinguru akademikoaren gaineko gogoeta bat» izenburuko testuarekin berriz itzultzen gara aldizkarietara eta Euskal Komunitate Zientifikoaren arazo espezifikoetara, baina, berriz ere, gaiari ikuspuntu desberdin batetik helduta: bere ibilbide akademiko nagusiki euskaraz garatu nahi duen ikertzaileak pairatzen dituen arazoak salatu eta *kontraesanaz betetako subertsioa* aldarrikatzen du, aldi berean komunitate unibertsitario osoa (eta ez soilik euskaraz aritu nahi dutenak) aipagai duelarik.

Nekane Balluerkaren testua, «Ikerkekuntzaren ebaluazioa Giza eta Gizarte zientzietan», hain zuzen ere, ikerkuntzaren ebaluazio-metodoen azterketan zentratzen da, baina euskararen gaineko konturik berariaz aipatu gabe. Eta honetan

berriz ere egiaztatzen dugu euskaldunon arazoak eta aukerak, eta gure inguruko unibertsitarioenak, oso antzekoak direla, euskararen espezifikotasuna alde batera uzten badugu. Normaltasunaren seinale?

Aitor Bengoetxeak bere artikuluan, ordea, galdera deseroso bat paratzen du, normaltasunetik oraindik urrun xamar gaudela inplizituki baieztuz: zein da euskararen prestigioa? Zuzenbidearen esparruari buruzkoa da haren azterketa, baina agian beste diziplina akademiko batzuetan ere antzeko kontsiderazioak egin daitezke. «Euskara juridikoaren bilakaera, *Uztaro* lekuko» da haren testuaren izenburua.

Gidor Bilbaoren eskutik ostera ere *Uztaro* da gai nagusia, aldizkari honen historia labor eta zehatz bat egiten duelarik Filologia eta Hizkuntzalaritzaren alorretatik eta hurbilekoetatik begiratuta; azterketaren ondoren, etorkizuneko erronken gaineko hausnarketa. «Hizkuntzaren eremuko jakintza-alorrak eta *Uztaro* aldizkariaren ekarpenak euskarazko aldizkari zientifikoaren langintzan» da artikulua izenburua.

Galder Guenagak eta Mikel Zurbanok hausnarketa orokor bat egiten dute Euskal Komunitate Zientifikoaz, baina Ekonomia eta Enpresaren alorretik, diziplina akademiko horrek *Uztaron* izan duen garapena xeheki aztertuz. «Ekonomia eta Enpresaren arloko euskarazko produkzio zientifikoa *Uztaron*» da haien testuaren izenburua.

Paulo Iztuetaren testua Hezkuntzaren Soziologiatik abiatzen da, baina aurreko artikuluetan ikusi ditugun bi ildo nagusiak aldi berean tratatzen ditu: batetik, diziplina akademikoaren ezaugarriak eta egungo arazoak, bestetik, Euskal Komunitate Zientifikoak dituen arazo espezifikokoak. «Paradigma zaharrak eta berriak Hezkuntzaren Soziologian» da haren testuaren izenburua.

Xabier Landabidearekin berriz ere bueltatzen gara diziplina akademiko zehatz baten azterketara eta, horretan, euskarazko produkzioa eta horrekin lotutako arazoetara: «Giza eta Gizarte Zientziak Komunikazioaren ikuspegitik: 1990-2015... eta haratago».

Mikel Navarro, ordea, diziplina akademiko batean zentratzen da ere, baina euskarari buruzko arazo espezifikokoak tratatu gabe. Horrela, «Lehiakortasun, hazkunde eta garapeneko lurralde-estrategiak» izeneko testuan hausnarketa orokor bat egiten du gizartearen garapenaz eta Ekonomiaren Zientziak horretan jokatzen duen paperaz. Eta berriz ere egiaztatzen dugu egilearen aukera hori gure komunitate zientifikoaren heldutasunaren seinaleztat har daitekeela.

Fernando Trebolena da azken-aurreko testua, «100 zenbaki eta hamaika ardatz: Psikologiaren ekarpena gizarte-eraikuntzarako» izenburukoa, eta bilduma honetan testu guztiak egileen lehen deituraren ordena alfabetikoari segituz ordenatu badira ere, kasualitatea da berau izatea, ziur asko, aurreko guztien ildoak eta gaiak nolabait aldi berean tratatzen dituen bakarra: diziplina akademiko zehatz bat (Psikologia) eta Euskal Komunitate Zientifikoaren arazo espezifikokoak tratatuz, baina, halaber, testuinguru global batean txertatuz, diziplina horretatik eta gure komunitate zientifikotik haraindi. Ez da ekarpen makala.

Baina, *excursus* zabal horren ondoren, azken testuan Andres Urrutiak berriz ere testu-bilduma honen kezken muin-muinera eramaten gaitu, alegia, *Uztarora*. Hortik abiatuz, Zuzenbidearen eta euskararen gaineko hausnarketa bati ekiten dio, azterketa historikoa eta etorkizunari buruzko proposamenak hurrenez hurren landuz; «*UZTARO: Zuzenbidea euskaraz, teoriatik praktikara*» da haren artikulua izenburua, eta oso egokia suertatzen da hitzaurre honi amaiera emateko: teoria eta praktika, horra gure aldizkari honek landu nahi dituen bi esparruak.

Langintza horretan lagun asko izan ditugu, eta gehiago ere izango ditugu. Askotarikoak. *Uztaroren* gain doa, ahal duen neurrian, guztien arteko komunikazioa areagotzea eta ezagutza soziala handitzea, hitz batez, Euskal Komunitate Zientifikoa sortzeko eta indartzeko lan egitea. Hori da gure zerumuga. Eta, bide horretan, beharbada egokia izan daiteke poeta baten hitzekin bukatzea. Hona haren bertso ezaguna:

*Zori hoberen baten atzetikan goazen,
bihotz Eder goseak non dezan atsedean.
Lur ezaguna atzean utzi ezkutatzen;
Uharte berriren bat aurki agerturen...*

Salvatore Mitxelena, «Itsasora dei», 1951¹.

1. XX. Mendeko Poesia Kaierak: *Salvatore Mitxelena*, antologia eta sarrera, Koldo Izagirre, Donostia: Susa, 2000, 37.-38. or.